

# Haitzuloetako Euskal Mitologia

JOSE MARIA SATRUSTEGI

«*Azpian dagoen guztia, gainean dagoena bezalada: eta gainean dagoena, azpikoa bezala*» (esaera zaharra)

«Todo lo que hay abajo, es como lo de arriba: y lo que hay arriba es como lo de abajo. (Conseja popular)»

**H**aitzuloa antzinako herrien kulturean kezka askoren jakinmina sortu duen aztarnategi misterioaren ate irekia da.

Lurraren sabel itsuari begira, adibidez, hanka azpian datzan eta egunero joan-etorrietan zapaltzen dugun lur-azalek barnera sartzeko bidea izan daiteke. Ikerle asko da jaisten saiatzen dena, *Espeleologizaleak* satorlan arriskutsuan lurpeko egoitza izkutu eta zeharbide ilunak ikusteko baliatzen du. *Geologilariak* haitz motak, hormen egitura eta adina zehazten ditu, jatorriko aztarna mugikorren zorian ere aspaldiko gertakizunen ondoreak sumatuz. *Hidrologiaz* zaletuak lurpeko urtegien egoera eta iturrama bakoitzaren urbi-deak ikasten ditu.

Bada beste ikuspeirik ere. Munduaren hezurdura hotz eta beldurgarria izan zitekeen lurpeko zuloa, babesleku eta egoitza atsegin gertatu zitzaion noizbait lehen gizonari, eta haitzuloen sarreran egin zuen laster bizileku eta hilobi. Ez zen asmakizun berria noski. Basabere zaharrek aspaldi ikasia zuten haitzuloetako babeskiaren bidea eta, aztarnategietan nabari denez, behin baino gehiagotan egongo zen gizona hartzairen neguko kobazulo berean atetik gertu bizitzen.

Historia iristen ez den garaira doa horrela koba eta babestokietako leku-kotasuna, eta gizadiaren lehen urratsak aurki daitezke itzalpean egondako az-

\*. Conferencia presentada el día 16 de mayo de 1996 en el ciclo organizado por el Ayuntamiento de Cestona, de cara a conservación de las pinturas rupestres de Ekain y su posible réplica.

tarnategietan. *Arkeologia* da hondakin eta margo zaharren bidez historiaurreko giza lehenen bizimodua, ohiturak eta pentsabidea azaltzen dituen jakintza.

Bada iturri hauetaz bestalde, eskuratutako materiale preziatuei argibiderik eman liezaiekeen altxor aberats bat: gizonak pentsabidez sortu, adostasunez onartu eta gizaldiz gizaldi oroimenez ekarri duen herri-jakintza alegia. Lur azaletik beherako haitzulo, leze eta urtegi xumeen ildotik, lurpean agoitza duketen jainko eta jainkosa, deabru eta basa piztien mitologia da aurkitutako zantzu askoren zergatia; Adibidez Ekaingo marrazkiena. Horrela gizonak berak utzitako harri, hezur, txirla, ikatz eta aztarna fosildu mutuei, espirituaren arnasa bizia eman die ahozko literaturak jantzi apalean izkutaturik.

Adimenaren sorketa-munduko olerkia egunoroko neke arruntetatik ihes egiteko ez baina, espirituaren hegal miresgarrietan aske, goiko bizidunen zerua eta beheko infernuen orpoa ezagutzeko ahalegin sakona zen. Gaurko egunean jakintza eta teknika lortzeko helburua bezain baliagarria zen orduan, eta jatorra.

Gizartearen oroimen edo memoria orokorra altxor emankorra da arkeologarien aztarnategien antzera. Lehen gizonagandik hasita ahultasunaren eta jakinminaren eraginez pentsabidean emandako aurrerapenen bilduma, eta garaian garaiko sinesteen aurkitegi abaratsa. Lekukotasunen historia-libururik zaharrena da herria, ordenagailu guztien aspaldiko iturburuan. *Etnologia* deitzen da herri-jakintza aztertzen duen antropologiaren atala.

Haitzuloei dagokien kulturen bizileku moduan izan duten garrantziarekin, mitologian sortutako pertsonaiak eta sineste zaharrak aipa daitezke bereziki.

## I. BIZILEKU

Ez da historia aurreko aztarnategietara joan beharrik kobazuloetan bizitako jendearen lekukotasuna aurkitzeko. Orain arte iraun dute Nafarroako Erriberan eta beste toki askotan lurpeko etxebizitzak. Bertan finkatutako familiak ziren eta mendi ertzeko lur-zuloetan egiten zuten bizia.

Jende hauek ez ziren noshi herriko aberatsenak izango, baina ez zuten betiko bizimodua arbuiatzen. Hogeita hamaseiko gerra ostean etxebizitza berriak egin zizkieten agintariek, eta sekulako eragozpen eta aitzakiak ipini zituzten gehienek kobazuloak uzteko. Neguan babesleku epela eta udan ez zi-rela berotzen, zioten bertako biztanleek.

Egun hauetan agertu da Nafarroako egunkarrietan (DN 1996. V.8), Valtierrako Udalak baduela lurzuloetako 15 edo 20 etxebizitza zahar txukundu eta udatiar eta bisitariei sasoineko egoitza moduan eskaintzeko asmoa.

Bizirik dirau beraz neurri batean haitzuloetako gizonaren aspaldilo zale-tasunak.

Erriberatik mendialdera joanez bestelako lotura izan du euskaldunak gure denboran harpeko egonlekuekin. Abereen atarpe izan ohi dira urtean zehar inoren eskubide berezirik gabe. Hezkur urteetan, hala ere, nornahik bereganatu zezakeen harpe bat udazkenean aziendak sartzeko. Lehenik harra-patzen zuena jabetzen zen eta ez zuen horrela zotola egiten lanik.

Zenbait harpe hobeak ziren besteak baino lehorrago zirelako edo, eta hezkur urtea aurreko udazken edo negu sarreran nabaritzen hasten denez, Arruazun adibidez, nere sorterrian, urte bat aurretik ezarriko zuen norbaitek bere ezaugarria harpe aurrean, harrapaturik zegoela adierazteko.

Jabegoak behingoz balio zuen bakarrik hezkurraldia igarotzean beste edozeinek har zezakeelarik hurrengo hezkur urterako.

Abereen oraiko aterpea antzinako gizonen egoitza izana da batzuetan, baliabide biak jarraian uztartuz. Duela urte asko Arabako Egino herriskan dagoen Jentilen koban egindako azterketan, adibidez, garai oso desberdinetako ezaugarriak agertu ziren. Hasteko, zoru gaineko azal lodia altxirri eta gorotz hutsekoa zen, aspaldidanik artsaldo eta abere larrien aterpe eta biltoki arrunta zela zalantzarik gabe erakutsiz. Bigarren maila zuriska batean erdiaroko ezaugarriak atera ziren kisu eta kare hondarrekin lurra nahasturik. Urtegi edo aska handi bat dago koba atzeko horma ondoan eta urbidea zihuan lur azpitik urtean zehar izandako eurien mendiko isurkiak biltzeko. Antza denez, guda-mutilen egoitza zatekeen orduan. Azterketaren aurrean hura mendizaleek hondakinak estaltzeko lurra magitua zuten zulo batean egin zen nahasi gabeko lurraren ertzak bilatuz, eta erromatarren ontzi puskek zaharragoko mugarri printzekin batean azaldu ziren. Itxura gabeko gertakizun itsusi batzuentatik utzi behar izan zen lan hura, baina noizbait haitzuloa era askotako jendeen balialeku eta egongela izana zela behintzat argi geratu zen.

Etxe eta egoitza ez ezik, ondasun iturri ere bazen askotan haitzaren bihotza. Meatz zuloak dira lurpeko ibilbide ilunen beste aurpegi izkutua, eta gosearen ametsa luzea denez, lurpeko altxorrei buruz esames asko sortu da herrietan. Haurtzaroan entzuten genuen Sakanan, Aralar mendian bazela tokiren bat urrea gain-gainean dagoena ardiek egunero hankekin zapaltzen dutela. Arruazuko San Pedro baseliza aurrean bazen haitzulo txiki bat altxorduna. Urre edo hango aberastasunari buruz era askotako esamesak daude. Lurrez estali zuten gero.

Lurpeko ibilbideak dira haitzuloen beste sokamuturra. Aralar mendiaren hegoaldean Arruazuko portuan dagoen «Potxiketako lezean» sartutako txakurra Lizarragabengoan edo Arbizun aterako omen zen elizako sakristian. Horrelako sineste asko bada herri-jakintzan.

Urek baliatzen dituzte bereziki bide horiek. Sakanako agureek esaten zuten, Urbasako urzuloetan botatako egotz xehea Ergonerriko iturri batean atera zela. Kolorezko hautsekin egin omen zuten geroago proba hori eta iturri hartan bertan agertu omen zen ur margotua.

Aberatsa da behereko munduari dagokion sinesteen kopurua, eta izkutua. Esaera zaharraren arabera, «azpian dagoen guztia, gainean dagoena bezala da; eta gainean dagoena, azpikoa bezala».

## II. SANTUTEGI

Haitzuloak eta santutegiak ez daude elkarrekin haserre. Harriaroko koba askotan bada antzinako sinesteen toki santua; eta kristau eliza nahiz baseliza batzuen oinarrian harpe edo lurzuloren bat aipatzen da.

Orreagako Amaren irudiaz esaten da pentzeko iturri ondoan agertu zela. Larunbatetan orein bat ikusten omen zuen jendeak adarretako izar printzekin gaua argitzen. Harriturik, iturri inguruko sasi eta zuhaitzak kendu eta ha-

rri landuekin egindako ataka aurkitu omen zuten, eta barnean Piriniotako Amaren irudia<sup>1</sup>.

Naiarako monastegi eta eliza ospetsuaren lehen berrietan antzeko gertakizun misterioak aipatzen da. Ehizaren atzetik sartu omen zen ehiztaria sasi arteko kobazuloan eta barnean aurkitu Nafarroako erregeen debozioko irudia.

Aralar mendiko santutegia ere Herensugearen kobazuloan oinarritzen da. Teodosio Goñiko zaldunaren kateak hautsi ziren lekua.

Elizgizonen beharrik gabe santutasunaren izen ona lortua duten haizpe ezagunak badira, bestalde, Euskal Herrian. Arantzako *San Juanxar* kobazulo handia da, eta bertan sortzen den iturria larruko gaitzak sendatzeko erabiltzen da. San Juan Festa bezperan hurbiltzen da, batez ere, jendea eta urarekin mina garbitzen ibilitako oihala bertan utzi ohi da harri, teila edo lurrez estalita.

Gauean bere burua estu ikusita laguntza eskatu zuen Bidarraiko neskato gaztea harri bihurtu omen zen bere herriko kobazuloan. Izerdia dario beti harri leunari eta sendatzera doakio noiznahi herri xumea. *Harpeko Saindia* da.

Horrela iritsi gintezke ahitura zaharren ildotik antzinako gizonaren sinesteetara. Badira mendian haitzeko zenbait zulo txanponen bat edo beste faltatzen ez zaiena. Nork uzten ditu? Zergatik daude han? Zertarako dira?

Txikia nintzanean Aralarko leize baten ondora iristean bidetik baztartzenginen, harri bat hartu eta zulora botatzeko. Elormentako trikuharria ere harripila izaten zen bidariek botatakoekin egina.

Urrutiago joanez, zer adieraz nahi zuten harri-aroko gizonen haitzulotan margoturiko irudiekin? Euskal Herritik atera gabe haitzuloetako irudi margotuetan badago ezaugarri bat nolabaiteko argibidea eman dezakeena. Arrainari heltzailearen ziri muturra ipini bazaio, arrantzara doan gizonak arrantza ona egiteko eskariarekin magiaren eraginez utzitako mezua izan daiteke. Itsasoa ez dago urruti eta ibaia ere ez; bertako hondakinetan arrain hezurak azaltzen badira haien burubidetik gertu egon gaitzke.

Baina, ez da beti horrela gertatzen. Zer esan, bestela, horma margotuetako irudietan dauden abereen hezur edo bestelako lekukotasunik agertzen ez bada aztarnategietan?

Ez zituzten noski apaingarri estetikoaren ikusmirarekin margotzen haitzuloak, ba baituzten eginkizun beharrekoagorik euren bizimodu latz eta aurrerabide murriztean.

Tokian tokiko herri zaharrek bazituzten, hala ere,azienda sagaratu, endababes edo totem eta animalia preziatuak, Euskal Herriko harri landuetan ze-

1. Es evidente la presencia de cavidades subterráneas en la leyenda dorada de muchas advocaciones religiosas. Refiriéndose el licenciado HUARTE a la aparición de la Virgen de Roncesvalles, dice lo siguiente: «En un prado llamado Orrierra, aparecía una celestial visión en las noches de los sábados, y era un hermosísimo ciervo con gran arramada en cabeza y en cada punta como unas candelas blancuísimas con extraña luz; y al punto se oía una música celestial de los ángeles cantando la Salve Regina. Acabada la Salve, desaparecía el ciervo.

Añade en otro lugar, que «la Virgen apareció junto a una fuente en un arco de piedra, el cual estaba cubierto de tierra, y en ella nacido árboles y maleza. Dentro del arco había una concavidad bien trazada y labrada, al talle de los nichos que tienen las imágenes de bulto en los retablos, en el qual cabía la imagen justamente» (IBARRA, Javier. *Historia de Roncesvalles*, Pamplona 1934, pgs. 212-213.

zena da ernalgarritasunaren eredu nabarmena. Galdera da Ekaingo pottokak zer ziren, ehiza ala giza-biziko baliabide mirestuak? Biak batean ere gerta daitezke. Munduaren beste muturreko berria bada ere, hartzarekin gertatzen da. Hokkaido, Japongo ipar aldeko uharte nagusian bizi da ainu herria. Sapporo tren-geltokira iristean, animaliko hartza beldurgarri batek ematen die ongietorria bidariei zutik. Hilik dago noski.

Ainuen zurezko etxe txikiak bi sarrera dituzte: pertsonen atea eta Jainkoaren leihoa. Bigarrena hartzarentzat bakarrik. Etxe ondoan hartzakumea bizitzeko beste etxetxoak daukate eta animalia buru-hezurra da etxebizitza guztien babeskia.

-Jainkoa al da, zuen hartza? galdetu nion biztanle bati.

-Bai! erantzun zidan besterik gabe.

-Jainkoaren haragia jaten duzue beraz?

-Ez! Hori ez! ihardetsi zidan haserre.

Etnografia-erakustokiko zuzendariak argitu zidan kontraesana. Elur tokiak direnez, negua oso luze gertatzen zaio jendeari, eta gose gorriaren garaia iristean, otsailaren erdialdera, hasten da hartzaren ehiza. Goiko jainkoek herriaz kupiturik, kobazulotik ateratzera bultzatzen dute hartza eta honen haragiarekin lortzen du jendeak posabidea.

Aldian aldiko jainko edo jainkosa zaindaria hartzaren burmuinetan kokatzen da animalia gizonen bidera eramateko, eta horregatik jainkoegoitza izandako buru-hezurra sakratua da, jainko-leihotik sartzen da animalia etxean eta ospakizunak egiten dira festa giroan.

Ekaingo zaldiek ez daukate noski Japongo hartzarekin zerikusirik, baina Euskal Herriko ahitura zaharrekin bai. Zaldia agertzen da hartzarekin batean Nafarroako ihauterietan. Zuberoako dantzetan nabarmena da zamaltzaina, eta Iruñeko zaldiko-maldiko hiritartu desitxuratua ahitura zaharretan oinarritutako pertsonaia da. Zaldia ez da beraz azienda arrotza herri-jakintzan. Gizonaren sinesteekin zer lotura zukeen neurtzea da zaila oraingoz. Itxura guztien arabera, santutegia zatekeen Ekaingo margoen gune estua eta zentzu erlijioso edo magikoa zuketean pattokoek. Horrela ez litzateke harritzekoa izango zaldien hezur eta hondakinik haitzulo ondoan ez agertzea.

### III. MITOGUNE

Mitoleku ere badira kobak. Antzinako gizonaren pentsamoduan, lurreko bizidunen itxura dute nonbaiteko jainko, jainkosa, indardun eta antzeko guztiek. Giza-tankerakoak dira, abididez, Mari, Basajaun eta laminak, Basabere eta mamutza bezala agertzen dira herensuge, sugaar eta gaueko baldurgarriak.

Onak izan daitezke edo gaiztoak, eta gehienetan haitzuloen inguruan mugitzen dira lurpeko egoitza gainekora bidean, neguko lozorrotik udako argira.

*Mari.* Emakume ederraren gorputzean ager daiteke, laino, haize eta argi zuriz inguratzen ez bada. Lurpeko egoitzan igarotzen du negua, udaberriko egun jakinetan ateratzen delarik eta udazkenean itzultzen. Mendiz mendi ibili ohi da eguraldi ona eta ekaitzak mugitzen. Amboto, Aralar, Txindoki eta Euskal Herriko mendi nagusiek badute Mariren Hartzuloren bat, baina ez dio inori sartzen uzten eta arriskutsua da benetan gizonarentzat haren eder-

tasunaz liruraturik maitemintzea. Badaki merezimenduen arabera ikatza urre bihurtzen eta urrearekin ikatza egiten.

Bazter guztietan kondatzen dituzte Mariren gauzak. Sakanan esaten dute Putterriko kobatik joaten dela Aizkorrira. Behin batean oso apal joan omen zen sua zeriola eta bideko zuhaitzak erre omen zituen pasaeran beko basoan. Aizkorriko Dama gaiztoa da eta sarrerarik ezean zeruan eta ez infernuan, hor bizi behar Aizkorriko haitzuloan.

Urterik urte aldatzen den lurreko indarren emankortasuna da noski Mari bere emakume jantzian. Lurpeko loa da negua eta biziaren argia uda, joan-etorri guztien hegoetan. Bere esku daude gizonen bitartekotzarik gabe eguraldi onak eta txarrak, laboreak eta urte txarreko gosea. Inork ezin du alorretan edo mendian urrezko orraziaren emaitzarik bildu haren baimenik gabe.

*Luzifer.* Maiatzaren lehen egunetan ikusten omen zen Luzifer Urbasa mendian «Hartzaren baratziatik» ateratzen Aralar mendira joateko. Su-tagar omen zihoan zaldi gorri baten antzera buztana sutan zuela. Bistan da Sugaar gaiztoaren ikuspegia dela.

Urdiaindarrak mendira joaten ziren maiatzaren hiruan mugak bedein-katzera. Hartzaren baratzeria iristean, inork ikusi ez duen kobozuloko azterketa egiten omen zuten. Apaizaren bonatea edo harriren bat bota behar zen barnera eta Luzifer han bazegoen atzera itzultzen omen zuen, eta bestela handik joana zatekeen. Baldin zuloan harrapatzen bazuten, egurrezko gurutzetxo horretarako zen harri gainean ipini eta ur bedeinkatuaz zipriztindurik koba ingurua, urte guztirako preso geratzen ziren aire gaizto, hodei eta ekaitzak.

Altsasuarrek ere Luzifer deitzen zioten batzuetan, eta Orobeko dama bes-tetan. Orobe harrobiko koba aurrean orrazten zen urrezko bere orraziarekin.

Ataun aldean, Marimuruko haitzulora joaten zen apaiza meza ematera. Urte batez mutiko bat eraman zuen laguntzaile. Aurrez aditzera eman zion jostagailu asko ikusiko zuela bidean, baina ez hartzeko. Iritsi ziren eta apaizak ezin zuen mezarik eman. Zer hartu zuen galdetu zion meza laguntzaileari, eta honek urrezko orrazia erakutsi eta apotzar edo kunkun bihurtu omen zen.

Mariren maila bereko eginkizunak ditu eta lurraren indar izkutuen giza-itxura bikoitza du.

*Herensugea.* Haitzulo goraiatuena Aralarko Santutegikoa izango da Euskal Herrian. Mitoa, kondakizunak, historia eta erlijioa elkartzen dira bertan. Herensuge hori lurpean bizi zen eta koba aurrera irtetzen zen herritik eramandako neska gaztea jateko.

Basapistia beldurgarri honen euskarazko aipamenik zaharrena Urbasa mendikoa da. Bi eratan jaso nuen Urdiainen.

Irainsubia Mendarteko lezian egoten emen zan, eta gauero herriko neskatx majena jateko atetzen emen zan lezetik. Gaueko neskatxa bat. Leze puntan emen zon neskatxa bere burua orrazten eta mutil bat joan emen zitzaien, neskatxain partez Irainsubiaingana sartzeko. Indar asko baitzuen Irainsubeak, burruka beltza sortu emen zan:

-A! oraintxe neskatxain musu bat banuka eta pinta bat ardo, irabaziko nitek bai! esan zion mutilak.

Arraultziaikin bekainien jota ez bada, ez dok nei irabaziko dianik, erantzun emen zion Irainsubiak.

Neskixa noa-edo-hara joan eta arraultzia ekarrita, hox! jo, eta subia hil emen zain.

(Plácido ARISTIZABAL, 76 urte. Urdiain. 1971. VI.6)

Berriemaile honen alabak beste ikuspegi batetik kondatzen zuen pasarte bera. Honela zioen:

Ireinsubia atazen zan lezetik eta eguneko nesakia jaten zuen. Herriko neskekik hobeena. Zon atso bat, sorgina edo dana dala, eta erakutsi zean:

-Eraman zan arroltze txiki bat eta jo Ireinsube horri bost aldiz arroltziakin kopetan. Berak eman zean arroltzia.

Ireinsubia ata ber zuen zuluain aurrien zon neskix hori orrazten. Mutila agertu eta esaten dio:

-Zer ari haiz hor? Nik muxingatu behar dinat horrekin.

Ata zen Ireinsubia eta hasi zian biak burrukan.

-Neskato baten besarkat eta pintaat ardo banuka dominatuko nitek bai nik hau!

Bitartean, kox, hox, jotzen emen zean neskak arroltziakin, eta bost aldiz jo zeanien hil emen zen Ireinsube hoi.

(Sabina ARISTIZABAL, Urdiain, 1971. X.17)

Herensugearen ikuspegi zahar honetan emakumearen eginkizun erabakiorra azpimarra daiteke. Zeruko indarren eta inongo gizonen laguntzarik gabe hiltzen du basapistia.

Oso antxinakoa da era berean, arrautzearen erabilpena magia munduan.

Hermes zenaren eginkizuna hartzen dute sortaldeko herrietan San Jorjek eta mendebaldean Mikel Goiaingeruak. Herensugea bera, haitzuloa eta mendiaeren erlijio sinboloetan oinarritzen dira<sup>2</sup>.

#### IV. AMA-LUR

Lur azpian dago, sineste zaharren arabera, gaiztoen infernua eta hildakoen mundua. Haitzuloak dira behereko egoitzan sartzeko ateak. Han bizi da jakintza guztiak dakizkien deabrua, eta konekin ikasi zuten Euskal Herriko jakitun handiek, hala nola Axular, Atarrabi, Jaun Benat eta Bargotako giza-sorginak, apaizak izan arren.

Ikasle baten anima zen ikastaroaren saria, baina Axularen itzalarekin eta zapeta zolaren puskarekin geratu zen irteeran deabrua<sup>3</sup>.

Mundu zabaleko herrietan banaturik zegoen maisu eskola honen ospea eta Kantek aipaturiko kristau mistikoen bidaia ere behereko mailen bidez infernura jaitsiz hasten da. Jakintza santuen iturburua ere bazen beraz.

Haitzuloa berez mendiek iragarritako indar gorenaren eta lurraren bihotzean kokatutako ahalen lotura sortzen duen ibilbidea da. Beste modu batera esanez, bizidun guztien ama den lurra hilobi da ortzi eta zeru gaineko eragin ernaltzailea gabe, eta kobazulotik egiten da Ama Lur-en sabeleko bizidunen ernalketa. Horrela berezko hilobia bizi berriaren iturrama bihurtzen da. Si-

2. SATRÚSTEGUI, J.M.: «El Santuario de San Miguel de Excelsis, Pasado y presente de una tradición popular», in *Santuarios del País Vasco y religiosidad popular*. II Semana de Estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco. Vitoria 1982, pgs. 195-223.

3. Sobre la cueva del diablo en Salamanca Cf. «Personajes populares relacionados con la brujería en Navarra», *Fontes Linguae Vasconum* 5, 1970, pgs. 183-229.

neste honen ildotik egin ziren mendi tontorretako haitzuloetan eliza zahar-  
rrak<sup>4</sup>. Bazen Aralarko Santutegiko elizan harlosa bat bitxia. Kobazuloa omen  
dagoen elizatxoaren ate aurrean egoten zen eta sineste zaharrak dioenez, ha-  
ren gainean meza entzuten zuen emakumea haurdun geratzen zen hurrengo  
urtean. Hala jakinarazi omen zioten behin han zegoen emakume bati.

-Hamalau ume badituz eta hori behar genuke orain! erantzun zuen.

Mezua bete zen eta bizkiak izan omen zituen andreak.

Aralarko aingeruaren irudiak nekazarien lurak bedeinkatzen ditu urtero,  
eta bere egunean hurrengo laboretako haziak bedeinkatzen ziren elizan; Sa-  
kanako herrietan bereziki baba, garia, artoa eta beste zaldare batzuk.

Harpeko uren sendagarritasuna ere zikindu eta kutsatu gabeko ur bizien  
ahalmenean ikusten zuten.

Sugea eta herensugea lurpeko biztanletzat hartzen ziren eta bizidun sakra-  
tuak dira euskaldunon herri-jakintzan. Ez da inoiz *hil* hitza aipatu behar ha-  
lakoekin. «Kalitu» esaten da Luzaiden eta Iparraldeko beste toki batzuetan<sup>5</sup>.

Zuruko Jainkoen emankortasuna Ama Lur-en sabelean gertatzen da  
munduaren urteroko berrikuntzan eta horren ondoreak dira Mari, Herensu-  
gea eta eguraldien antolamendua egiten duten bigarren mailako pertso-  
naiak<sup>6</sup>.

## V. HILOBI

Bizia sortu duen lurak erakartzen du bertan hiltzera itzultzeko gogoia,  
Ama Lur-en sabeleko umetoki izkutua animen atsedeneku bihurtuz.

Berezko joera honek ez du euskaldunen artean azalpen askoren beharrik.  
«Nere etxe pobrea Erregerena baino hobea», dio esaera zaharrak. Iparragirrek  
maisuki abestu zuen bezala, *Errialde gustietan toki onak badira baina bihotzak  
dio*, «zoaz Euskalerrira».

Duela hogeitaka urte etorri zitzaidan etxera Willian C. M. BROWN, Esta-  
tu Batuetako hizkuntzalari gaztea, euskara ikasi nahi zuela esanez. Honen-  
beste denboratik behin magnetofoi grabaketak egin ohi zituen euskaraz Ipar  
Ameriketara Unibertsitate bateko iker-lankideei igortzeko. Bedratzi hilabetez  
ikasi zuen euskara eta Euskaltzaindiko batzarrera eraman nuen gizona.

Zorionak eman nizkion hain denbora gutxian ikasi zuelako gure kiz-  
kuntza.

-Hori da errazena, erantzun zidan; mekanikoki egiten da. Orain dator  
zailena, hizkuntzaren zantzuak euskaldunen sentipenetan nabaritzea alegia.

4. La devoción popular a San Miguel de Aralar asocia el concepto de santuario montaña y san-  
tuario-gruta «entidades macrocósmicas y noción del microcosmos; esto aparece ordinariamente en las  
religiones bajo la forma concreta de un “Salvador” o de un mediador producto de la fecundación de la  
tierra por el cielo». BEIGBEDER, Olivier. *La Simbología*. Oikos-tau, col. ¿Qué es? 17, pg. 25.

5. El motivo aludido por el que no se pronuncia la palabra «muerte» en alusión a las serpientes,  
lagartos y otros animales del subsuelo no es exclusivo de las tradiciones vascas. «Nombrar es en efecto,  
*evocar*, suscitar su presencia siempre terrible», dice BEIGBEDER (pg. 24).

6. Los atributos de Mari, Herensuge, Sugaar y otros genios de las tradiciones populares no son  
propiamente divinos. Es como si «al dios celeste único, demasiado impasible» lo suplantaran otros se-  
res más activos, encargados de desencadenar las tormentas y garantizar la floración de la fecundidad.  
(BEIGBEDER, *ibid.*)



Ezin nuen ulertu zertarako azter nahi zituzketen Ameriketako ikerlariak euskaldunon keria eta zaletasunak.

Denboraren buruan itzuli bat egin nuen Vidalaren Argentina traketsera, eta Buenos Airesko Euskal Etxean jakin nuen izanak zirela han ere «amerikar» batzuek euskaldunei galderak egiten. Nik lortu ez nuena ikasi zuen aita Ataun kaputxinoak: «Munduko nagusi haiek ezin zutela inola ere ulertu euskaldunon herrimina. Nola Estatu Batuetan zelai handi eta aberatsak utzita, hemengo mendizoko eta lur pobrera itzultzen ziren hezurak uztera. Bazter guztietatik joandako ipar amerikarrek ez dute nonbait bertako herri-loturarik sentitzen, eta hori zertan datzan sakondu nahi zuten.

Gaurregun asko aurreratu da psikologia alorreko arazoan azalpenean, eta lotura hori nondik datorren jakitea da kontua. Etxea da, noski, bertako bizidunen eta hildakoen babeslekua. Berandu arte ehortzi dira bataiatu gabe hildako haurrak hegatz azpian. Etxe barnea bera izan da nozbait hilen azken egoitza. Urdiainera iristean 1964an jakin nuen hezurak agertu zirela sukalde bateko zoruan. Zakarrek joan omen ziren gurdian. Brontzeko kaskabiloa da haien lekuko bakarra. Baina handik bizpalau urtera, bere sukaldeko harlosak jasotzen ikusi nuen Sebastian Zubiría eta, aurreko aurkipena non zegoen kontuan izanik, lixiba harriaren ondoan lurra mugitzeko eskatu nion. Giza-hezur handiekin etorri zitzaidan berehala. Ez da beraz haurtxoen kontua bakarrik.

Arbasoen hilobi izana hartu da batzuetan, baserria eta gizonaren arteko lotura bezala. Egia da noski etxea eta bere hilobia ondore ezin banatua izan dela euskaldunarentzat, orain bertan Iparraldean bezala. Hortan ere badaukat neuk ikusitako aipamen bat. Etxaldea saltzean aurreko izen zaharra mantentzen du Luzaiden etxeak nahiz hilarriak. Pertsonen izen eta abizenak aldatzen dira bakarrik, eta nagusi berriak odolekoak ez izan arren, antzinakoen jarraikide bilakatzen dira ohizko erantzunkizun guztiekin. Badago beraz nolabaiteko lokarriren bat odolaren gainetik dagoena.

Horixe da, hain zuzen, ikasien susmoa. Mircea Eliadek espreski dio ez dela herria, auzoa edo aberria, ez eta ere familia, etxea nahiz bertan ehortzien atxikimendua azken finean gizonari bere sustraietara tiratzen dion sentimendua, Ama-Lur agorezinen emankortasunak sortutakoa baizik. Haitzak eta mendi tontorrak, ibai, zuhaitz eta loreak sortu dituen eta familiako lotura guztiak baino sakanago den kosmoegiturazko atxikimena alegia<sup>7</sup>.

C. G. Jung bere aldetik hil ondoko atsedengoari lotzen zaio, eta hau dio: lurpera jaistek amaren sabelera itzultzea adierazten du, eta haitzuloak elizen kasuan hildakoen gogoetaz burututako eraiketa nabarmentzen du, Mitraren kultuan bezala.

7. «Hasta en los europeos de hoy día sobrevive el sentimiento oscuro de una solidaridad mística con la Tierra natal. No se trata de un sentimiento profano de amor a la patria o a la provincia; no es la admiración al paisaje familiar o la veneración hacia los antepasados, enterrados desde generaciones alrededor de las iglesias de los pueblos. Hay otra cosa en ello: la experiencia mística de la autoctonía, el sentimiento profundo de que uno ha emergido del sueño, que ha sido alumbrado por la Tierra del mismo modo como la Tierra ha dado nacimiento, con fecundidad infatigable, a rocas, ríos, árboles y flores. Es en este sentido que debemos comprender la autoctonía: cuando uno se siente pertenecer a las *gentes del lugar*, este es un sentimiento de estructura cósmica que supera en mucho la solidaridad familiar y ancestral». (Eliade, MIRCEA, *Mitos, sueños y misterios*. «Mutter erde», Madrid 1991, pg. 177.

Ikerle ospetsuaren ustez, Herensugea bera, ama irenslearen irudia, hasieran bizidunak eskaintzen zitzaizkion basapiztia izango zen sineste zaharretan, gero bestelako opariak egin bazitzaizkion ere<sup>8</sup>.

Aberatsa da benetan mitoen munduan sartzen joateko ahozko literaturak emandako altxorra.

## RESUMEN

*El trabajo estudia diversas funciones de las grutas en el campo de la cultura tradicional. Han servido de refugio en vida y de tumba para sus moradores. Han inspirado numerosas tradiciones, leyendas y mitos que pertenecen al acervo de los pueblos. Y en una vinculación más íntima que relaciona al hombre con la Tierra Madre, la gruta vendría a ser el conducto natural por el que aflora la vida y la vía de regreso que la reabsorbe en la muerte. Es sintomática la edificación de santuarios sobre supuestas cuevas con leyendas de dragones y bestias que devoran a sus víctimas.*

8. «El descenso al interior de la tierra simboliza también la vuelta al *cuerpo de la madre* y estaba muy difundido como culto a las grutas». (pg. 349)

«El mismo tema encontramos en la gruta de Mitra y demás grutas sagradas hasta las catacumbas cristianas, cuya significación proviene no de las legendarias persecuciones, sino del culto a los muertos. En el fondo, con la inhumación en recintos sagrados (en el *jardín de los muertos*, en claustros criptas, etc.) no se hace más que restituir a la madre el ser que nos es querido, con la esperanza de que ella lo resucitará en recompensa de esa repultura. Primeramente habíase procurado hacerse propicio mediante sacrificios humanos al dragón que mora en la cueva, representante de la madre devoradora. Más tarde se renunció a ellos, reemplazándolo con ofrendas naturales». (JUNG, C. G. *Símbolos de Transformación*. Paidós, Barcelona, 1982, pg. 376).